


+

**BIDAIA ETA MENDI
KRONIKEN
LEHIAKETA (IV)**

Nemban dago nazioarteko lankidetzaz nafarraren sorlekua, hango ospitalea eraikitzen laguntzeko sortu baitzen Nafarroako Medicus Mundi joan den mendean. Lanbropeko bazter menditsu eta eder haietan elkartasuna eta auzolana ezinbestekoak dira.



Gaztetxo bat etxera bidean Kabuie mendia magalean barrena, malda pikoan goiti datozen alorren ondotik. ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN SAGALA

Egonaldi labur bat mila mendixka eta koxka artean

Itziar Diez de Ultzurrun Sagala

Ez naiz edonoiz edonora joateko gertu dagoen jende noranahitar hori bezain ibili zalea, baina aukera batzuk ezin galduzkoak iruditzen zaizkit, eta halakoxea begitandu zitzaidan Ruandara etorri eta nafar lankidetzaren lehen proiektua bertatik bertara ezagutzeko aukera hau. Hemen nago, bada, Nembako ospitaletik gertu dagoen adreiluzko eraikin baten

gela ttiki honetan, ohe gaineko eltxo-sarea bildurik, maleta hegaldirako prest, eta eguna argitu aurretik ere esna berriz, gutun hau idazten, pareko eliza gorri ederrean gaur ere eliztarrak goiztiar hasi direlako ozen kantari.

Kigalira iritsitakoan etorri zen bidaia honen lehen ezustekoa, ohartzean zer usain estandarra zerion aireportuari; zer aratz eta txukun zegoen dena. Auskalo zer espero zuten barnean beti xaxaka ibiltzen zaizkidan nire aurrejuztu kantsagarriek... Pasaportea begirtzeko ardura zuen poliziaik,

mespretxuzko harrokeriaz, nire hogeie dolarreko billetea hartzeari uko egin zion, zikinegia, nonbait. Beste billete bat eman nion eta joan nintekeela adierazi zidan, boterekeriazko kokots keinu batez. Barrenak agindurik, *Murakoze* esan nion, eskerrik asko, eta begietan zabaldu zitzaion irriak beste behin berretsi zidan Mandelaren esaldi haren egia: «Norbaiti ulertzen duen hizkuntzan egiten diogunean, buruari helitzen zaio mezua; berean egiten diogunean, ordea, bihotzari». Horregatik, Kigalitik Nembara

bidean gindoazela, Kynarwandako hitzak buruz ikasteari heldu nion buru-belarri, eta *Muraho* (kaixo) bihurtu da nire hitz kutunenetako bat hemen, ezagutu dugun jendea agurtzeko huts egin gabe erabili dudana lehen hitza, haien solaskide izateko baimen eskea, luzatu dieidan begirunezko zubia.

Nemba izan da gure bizitokia Ruandan, Gakenkeko barrutian. Errepide zabal asfaltatu batean barna iritsi ginen hona. Han-hemenka, langile taldeak ikusi genituen zoruko zuloak konpontzen,

gehienetan hurbil zutelarik txinatar itxurako gizon bat, nagusi lanak egiten, lastozko kapela zabal buruan. Horixe bidaia honen beste ezusteetako bat, Txinaren itzala. Jakin dugu Txinako enpresak arduratzen direla azpiegitura anitzez, han ehuntzen direla hain gustagarriak eta dotoreak iruditzen zaizkigun oihalak, emakume ugari oraindik soinean eta buruan daramatzatenak, eta klase diruduneko familia batzuk hasiak direla seme-alabak Txinako unibertsitateetara bidaltzen. Gidariak errepideko zuloak oso



Nembako Mbuga eskolako ikasle talde bat. Lehen hezkuntza doakoa eta derrigorrezkoa da Ruandan. I. DIEZ DE ULTZURRUN SAGALA



Kigalitik Kivu lakura eta Gomara (Kongo) doan errepidea: emakumeek karga astunak eramaten dituzte buru gainean, eta bizikletak zemahi garraiatzeko ballatzen dira. I. DIEZ DE ULTZURRUN SAGALA

egoskorrek zirela argitu zigan, konpondu arren, eurriak urtero hondatzen dituela, eta istripu larri asko gertatzen direla. Politikaz ez hitz egiteko ere aipatu zigan, bera ez dela politikaz mintzatzen, politikaz gobernuak eta irratietako esatariek baizik ezin dutela hitz egin.

Ruandan esnatu ginen lehen egunean, azken egun honetan bezala, meza kantuak izan genituen iratzargailu, eta, gosaldu berrian, elizara kuxkuxean sartzeko tentaldia ezin eutsizkoa egin zitzaigun. Meza hasia zegoen, abestiek, txaloek, eliztar gehien gazetasunak, janzkera koloretsuek eta ume batzuen dantzek ikaragarri alaitzen zuten erritu hura; nahiz eta sartu orduko zimitiko garratz bat sumatu nuen urdailean, aldre ondoko Jainkoaren azal zuri mendebaldarrari begira: kolonizazioaren ikur ustela ikusi aste izan nuen irudi hartan, gure hemengo egonaldi hau beste historia baten atala balitz bezala. Kontraesanak onez eramaten ikastea da gure lehen ikasbidea.

Egunotan, gozero, Ruandako betiereko lanbroa goititu ahala, inguruko muino hezeek mugatu digute hodeiertza. Landa eremu jendetsu, malkartsu eta txirotu honetan, herritar asko mendi mazeletan bizi dira, iturriko urrik eta argindarrik gabeko etxe xumeetan, nekazaritza bizibide.

Basoak urriak dira bazterrotan, jendeak oihanari lurra ebatsi behar izan dizkiolako, jateko; eta, hortaz, gure irudimeneko oihan sarrri, elefante eta lehoiak ez dira inon ageri. Bananondo sail eskas batzuekin eta zutoin bati loturik larratzen diren ahuntz mengel eta bakartiekin konformatu behar. Lur gehienak alorrek dira, baita aldapan goiti doazen mendi magaletan ere, kaskoetaraino igo-

zen baitira lur landuak. Nekazari-erriek loturik egin behar dute lan, amiltzeak saihestearren, baina, halere, lurra lantzen gertatu ez beharrak ez dira ez gutxi, ez samurrak: hezur hausturak eta beselako traumatismoak ospitaleetan artatu beharreko arazo nagusietako bat omen dira. Gosearen hamaikagarren ajea.

Genozidioaren museora

Bide bazter eta txoko guztiak jendez beterik daude, eta, hasieran, gazte eta haurren kopuru handia hagitx deigarria egin zitzaizen heldu eta zaharren nagusigora ohi-turiko gure begiei. Horregatik, zoragarria da bide ertzean eseri, zuhaitz txiker baten abaroen, eta ezker-eskuin so egitea, bideetan *inzira* esaten zaie hemen – sumatzen delako ongien herri honetako bizi-borborra: gazteak maldan gora plastikozko 21 aukliz zamaturiko bizikleta herdoilduei bultzaka; oiha gorri-berde-urdin-horiz apainduriko emakume saldoak ur-bidoiak buruan; aldapan beheiti ziztu bizian datorren txirindulari talde dotorea, guztiz eta erabat hornituak Frantziako Tourrean lehiatzeko gisan; barnetegira doazen gazte zalapartatsuz mukuritu beteriko autobus tikiak, sabaian kolore biziko hamaika lastaira daramatzatenak; haur taldeak, sandaliak eskuetan eta oinutsik arineketa... Eta, oso noizean behin, errepide nagusian, luxuzko ibilgailuren bat, lanbropeko gorilak ikustera doazen bidaiariengarraioan. Bizia borbora eta gure munduaren kontraesanak harat-honat.

Egun hauetan ia egunero elkartu izan gara lankide eta herritar ruandarrekin, Nembako ospitaleko, barrutiko osasun etxeetako eta beste proiektu batzuetako lana ezagutze aldera. Proiektuaren helburua biztanle-

en bizi baldintzak hobetzea da, osasun sistema publikoa sendotuz. Egitasmoak poliki doaz aitzina, *buhoro-buhoro*, hemen dioten bezala, hobekuntzek, muinoetako lainoen antzera, gero eta sakonago eta zabalago busti ditzaten bazterrak.

Ospitaleko bisitaldietako batean, erizain batek harro aipatu zigan nola saiatzen diren osasunari osotasunez begiratzen eta muzin egiten mendebaldeko medikuntzaren ikuskera estuari. Horra etxera ekartzeko moduko beste irakaspen bat. Hutsuneak eta premiak handiak izanagatik, os-

Landa eremu jendetsu, malkartsu eta txirotu honetan herritar asko mendi mazeletan bizi dira, iturriko urrik gabe

Hutsuneak eta premiak handiak izanagatik, ospitalera datorren jende guztia artatzen dute

pitalera datorren jende guztia artatzen dute, eta badituzte ballibideak are jantoki soziala antolatze-ko ere, dirurik gabekoei jaten ematearren. Baina ikusi izan ditugu, orobat eta tamalez, Europan diseinaturiko egitasmo burugabeak, hala nola ezin erabili diren kirurgia gela bikain batzuk, proiektugileek ez zutelako aurreikusitako logeletarainoko pasabidea ere behar zela. Etsigarria. Eta etsigarria izan da, halaber, barrutiko arduradun politikoko batzuei entzun izana eritasunen %80 higie ezari zor zaiola eta amen ez-jakintasuna dela arazo nagusia. Eskerrak nekazaritza eta abeltzaintzako kooperatiba batzuetako arduradunek beste azalpen bat hobesten duten, haien ustez herrialdeko egiturazko txirote prozesuari egotzi behar baitzaio eritasunen tasa handia. Egunotan

pentsatu dut zeharo ezberdina dela errua nori leporatu, emakumei ala sistemari; bi erantzunek ikuspegi bateraezinak agerrarazten dituztela, ideologia bateraezina, eta hortxe dagoela kokka.

Asteburuan, Ruhondo lakura joan ginen egun-pasa, eukaliptobaso eta pinudien artean igaroz oraingoan. Bidean, gidaria *Umugandaz* mintzatu zitzaigun, hila-beteko azken larunbatean egin beharreko auzolanaz. Genozidioaz geroztik berrezarri ei da. Oso bitxia da baina genozidioaren hodei beltza nonahi igarri arren, inor ez zaigu hartaz zuzenean solastatzen... Handik bi egunera, Kivu lakura bidean, muinoetan gora doazen te alor amaigabeak zeharkatu ondotik, errefuxiatu zelai jada hustu batzuetatik oso hurbil igaro ginen. Kivu inguruan, garai bateko aberats kumeen luxuzko etxeak ikusi genituen

gero, eta antzinako moldera egitniko etxetxoak: lastozko teitadun etxola biribilak, banbuzko etzaukiz hornituriko lorategi polit baten erdian. Turistendako lotokiak ziren; izan ere, halako bizi-tegiak debekaturik daude orain, kanpotarrek baizik ezin dituzte erabili. Ondare arkitektonikoaren lapurreta turistikoa, nolabait esatearren.

Azken egunetan oso azkar joan dira orduak. Beste bi osasun etxe ezagutu ditugu eta Kabuie mendira igo gara, etxetik beretik abiatu ondoko, mendi ibilbideak antolatze-ko kooperatiba bat sortu nahian dabilzanak. Lau orduko igoera malkartsua izan da. Urrutian, Kongo aldera, sumendiak begiztatu ditugu eta iparreko magaletik jaitsi gara, etxetxoz josita-ko mazal batetik beheiti.

Helene erizainaren etxe labirinto itxurakoa ere ezagutu dugu, bere kabuz eta eskuz eraikitzen ari dena, neska gazteendako aterpe izan dadin. Agur festa egin dugu ospitaleko langileekin, eta gure arropa dotoreenak jantzi ditugun arren, zarpailtsu samar azaldu gara argazkietan, hangoen jantzi dotore bezain sotilen ondolan.

Genozidioaren museora ere joan gara, Kigalin, oroimen historikoa nola berreraiki behar ez den beste behin ikastera. Gurean egitniko akats berak han: besteak eta gu; ongia eta gaizkia. Garaileak eta garaituak. Isiltasunaren bakea eta gutxiengo baten mesederako demokrazia. Museoak sorturiko ezinegona baretzeko –edo areagotzeko, agian–, *Vita et Pax*-eko bi andrekin bildu gara etxerako hegazkina hartu aitzin, politikaz mintzatu zaizkigu ahoan bilorik gabe. Atxilo dagoen Victoria Ingabirez hitz egin digute, oposizio-ko buruzagiaz, eta Kizito Mihigo abeslari eta bakezale espetxeratuaz. Kagameren diktaduraz, jendearen beldurraz, oraingo bakearen ustelaz, ezberdintasun sozial gero eta handiagoz, garapen ereduaz...

Argi da oro ez dela urre hemen, plastikorik gabeko paradisu moderno itxurako honek badituela ertz ilun asko (gure *Eden*-ek bezainbeste, bestalde), baina egia ere bada ezen, pobrezia eta injustiziak hemengo gizarte toles guztiak zeharkatzen dituzten arren, egitasmo eredu garri askoren borbora ere sumatzen dela herrialde honetan: kooperatibetan elkarturiko herritarrenak, auzolanerako prest dauden emakumeenak, ospitalean luze lan egin ondoren aterpeak eraikitzen dituzten erizainenak eta 10.000 karaktere hauetan kabitu ezinik gelditu diren beste anitzenak.